

**UPV/EHUko IKASLEEN SEKTOREAN LASTER EGIN
BEHAR DIREN KLAUSTRORAKO ETA, HALA
DAGOKIONEAN, IKASTEGIKO BATZARRETARAKO
HAUTESKUNDEETARAKO ESKULIBURUAREN 1. FASEA**

SARRERA.....	2
ERROLDAK OSATZEKO IRIZPIDEAK	3
IKASTEGI BATEAN BAINO GEHIAGOTAN BALDIN BADUT MATRIKULARIK?	4
NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN?.....	5
ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO?.....	6
NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT?	6
HAUTESKUNDE BARRUTIA ETA HAUTESKUNDE MAHAIA	7
NORTZUK OSATZEN DITUZTE HAUTESKUNDE BATZORDEAK?.....	8
ARGIBIDEEN HURRENGO FASEA	10
IKASLEEN KLAUSTRORAKO HAUTESKUNDEETARAKO EGUTEGIA. 2013ko AZAROA/ABENDUA.....	11

SARRERA

Gobernu Kontseiluak, **2013.eko uztailaren 18ean** egindako bileran, Unibertsitateko Klaustrorako hauteskundeetarako deia egitea erabaki zuen, ikasleen sektorean, gobernu kontseiluaren urriaren 10eko bileran zuzenketa bat egin zitzaiolarik, eranskin gisa atxiki den egutegiaren arabera.

Klaustroa, errektoreak, bertako burua izanik, idazkari nagusiak, klaustroko idazkari gisa jardungo denak, gerenteak eta 240 kidek osatzen dute, azken hauek honetara banatuta:

- 135 kide (% 56,25), irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreei dagozkie.
- 18 kide (% 7,50), irakasle eta ikertzaile iraunkor ez-doktoreei dagozkie.
- 5 kide (%2,09), gainerako irakasle eta ikertzaileenak dira.
- **53 kide (% 22,08), ikasleenak dira.**
- 29 kide (%12,08), administrazio eta zerbitzuetako langileenak.

Irakasleen eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkarien agintaldia lau urtetan behin berritzen da. Ikasleen ordezkariak bi urterik behin berritzen dira. Azken hauek dira, ikasleen ordezkariak duten 53 pertsonak, heldu den abenduaren 10ean hautatuko direnak.

Klaustrorako 53 postuan UPV/EHUren ikastegi ezberdinen artean banatzen dira, gutxien dela, bana ordezkari ikastegi edo doktorego eskola bakoitzeko esleituta. Honetarako, giza zientzien titulazioa (Esperientzia Gelak deiturikoa) ikastegi bakar bat bezala hartzen da eta ordezkari bakar bat esleitzen zaio. Gainontzeko ordezkariak (20) ikastegien artean banatuko dira, kidego honek ikastegi bakoitzean daukan proportzio erlatiboaren arabera.

Behin behineko banaketa ikastegi guztietara igortzen da ikastegiko iragarki tauletan erroldekin batera argitara dadin. Erroldei egindako inpugnazioak ebatzi ondoren, behin betiko bihurtzen da erroldekin batera, Hauteskunde Batzorde Nagusiak hala erabakita.

Ikasleen klaustroko ordezkariak garrantzitsua da, izan ere, ikasleek gobernu kontseiluan, unibertsitateko gobernu organorik gorenean, dituzten bost ordezkari hautatzen baitira klaustroan, klaustroko ordezkari horien beren artean hautatuta.

Honez gain, hauteskundeekin bat etorrita, ikastegi gehienetan ikastegi batzarreko ordezkariak ere hautatuko dituzte tokian tokiko ikasleek. Honela hautatutako ikasleek, ikastegian ikastegiko

batzarrean dagozkien tokietan aritzeaz gainera, ikastegiko ikasleen kontseilua osatuko dute (horiek eta ez beste inork).

Hauteskunde hauei aplikagarri zaion arautegiari dagokionez, lehenengo eta behin, UPV/EHUko Klaustroaren Funtzionamenduari buruzko Arautegia (2011/10/13ko EHAA) eta, gehigarri gisa, UPV/EHUREN Hauteskunde Araubide Nagusiaren arautegia aipatu behar dira.

Eskuliburu honen bidez, ikuspegi orokorra eman nahi zaio ikasleen sektoreak unibertsitate klaustroan berritzeko prozesuari, bai eta sektore honen ordezkaritza ikastegietako batzarretan berritzekoari ere. Honetara, prozesuaren fase bakoitzean, unibertsitateko kideek modu errazean jakin ahal dute nola ari diren garatzen hauteskundeok eta, pertsonalki, hauteskunde egutegiari begiraturik, zerbait egin behar ote duen jakingo.

Fase honi askotan ez zaio behar bezalako arretarik eskaintzen: datuak grabatuta eta, gaurkotuta daudelakoan, erroldan egongo garela uste izaten dugu. Eta hala izaten da kasuen % 99ean, baina 40.000 pertsona baino gehiagoren datuak maneiatzen ari dira eta, prebentzioaz prebentzio, ez da harritzeko errakuntzaren bat beti egotea. Badago zer eginik horrelako akatsak konpontzeko, **HAUTESLE ERROLDA BEGIRATZEA**. Izan ere, **BOTOA EMATEKO** datozen klaustrorako eta, hala dagokionean, ikastegiko batzarrerako hauteskundeetan, abenduaren 10erako aurreikusitakoetan, **HAUTESLE ERROLDAN EGON BEHARRA DAGO**.
NORK OSATZEN DU IKASLEEN SEKTOREA?

ERROLDAK OSATZEKO IRIZPIDEAK

Errolda 2013.eko azaroaren 4an itxiko da.

Idazkaritza nagusi honek erroldak osatuko ditu GAUR aplikazioko errolden programaren bidez eta ikastegi guztietara igorriko ditu ikastegiz ikastegiari atxikitako ikasleen behin behineko erroldak, bai eta UPV/EHUREN Master eta Doktorego Eskolari adskribaturik egonik, botoa ikastegi horretan botoa emanen duten ikasleena eta ikastegi bakoitzari dagozkien klaustrokideen behin-behineko esleipena ere, hauek guztiauek **2013.eko azaroaren 5ean** iragarkien taulan jar daitezten.

Ikastegiak hala eskatu badu, Idazkaritza Nagusiak Ikastegiko Batzarraren hauteskundeetan baliatu beharreko errolda ere osatu eta igorriko dio.

Hauteskunde erroldaosatzen dute bertan irakatsitako edozein titulazio eta ikasketatan matrikularik duten ikasle guztiek, hau da:

- Lizentziaturetako ikasleak (1. eta 2. zikloko ikasketak)
- Diplomataturetako ikasleak (1. zikloko ikasketak)
- Graduoko ikasleak
- Graduondoko ikasleak (master ofizial edo doktoregoko ikasleak)
- Berezko tituluko ikasleak
- Esperientzia geletako ikasleak

Doktoregoko ikasleen kasuan, doktorego programa batean egon beharko du matrikulatuta, doktorego tesiaren defentsa egin gabe. Ez dira ez hautesle ez hautagai izango UPV/EHUra atxikitakoa ikastegietako ikasleak.

Ikasketak egiten dituzten ikastegiko erroldan agertuko dira UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolari ofizialki atxikitako ikasleak. Master ofizial eta doktoregoko ikasleei beren matrikula hasi zenean esan bezala, beharrezkoa da hauteskunde hautetan botoa emateko matrikula egina izatea (tasak ordainduta ere bai) urriaren 24a baino lehen.

Ezin da administrazio eta zerbitzuetako langilerik eta irakasle eta ikertzailek ageri ikasleen erroldan. Ondorio hauetarako, gogoan izan behar da beka batekin ari diren doktoregoko ikasleak, kontratu fasean direlarik, bestelako irakasle eta ikertzaileen izaera duela eta, horregatik, ez du botorik ematen hauteskunde hautetan.

IKASTEGI BATEAN BAINO GEHIAGOTAN BALDIN BADUT MATRIKULARIK?

Ikastegi batean baino gehiagotan matrikulatuta egonez gero, hauteskunde errolda bakar batean agertuko dira, hain zuzen ere, arduraldi handieneko ikastegikoan. Ikastegiotan arduraldi bera izanez gero, (ikastegi batean zein bestean matrikulatutako kreditu kopuru bera, alegia) botoa emango du matrikula lehenago egin dueneko ikastegian.

Adibidez:


Matrikula egin banuen 2010ean Bilboko Ingeniaritzako GETean eta ikasturte honetan 25 kreditu dauzkat matrikulatuta telekomunikazioen ingeniaritza teknikoko graduko 2. ikastaroan eta 15 kreditu Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioko Graduan Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoan, bertako matrikula 2009an egin nuelarik, Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoko erroldan agertuko naiz, arduraldi handiagoa dudalako bertan. Baina, telekomunikazioen ingeniaritza teknikoko graduko 2. ikastaroan 15 kreditu eta beste 15 kreditu Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioko Graduan baldin badituz, Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoko ikasleen erroldan agertuko naiz, bertan lehenago matrikulatu nintzelako.

Sufragio aktiborako (botoa emateko) eskubidea gauzatzeko ***bal dintzak hautesle erroldak ixteko egunean bete beharko dira, hau da, azaroaren 4an***, eta botazioaren egunera arte bete beharko dira. Horrek esan nahi du ezin izango dela bozkatu, baldin eta errolda ixten denean matrikulatuta egonda ere, abenduaren 10a baino lehen, botoa emateko eguna, matrikula deuseztaturik gelditu bada.

NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN?

Errolda azaroaren 5ean argitaratuko da ikastegi guztietako iragarki oholetan eta bertan egongo da abenduaren 10era arte. Hortaz, errolda zauden ala ez jakiteko lehenengo modua zeure ikastegira (zeuk ikasteko erabili edo adskribatu zaizunera) joatea da.

Ikasleek GAURren bidez ere kontsultatu ahal izango dute errolda. Zein bere datuak egiaztatu ondoren, ezkerreko zutabean aukera berri bat dutela ikusiko dute: “Errolda”, eta horren azpian “Klaustorako hauteskundeak – Errolda” eta “Ikastegiko Batzarrerako hauteskundeak – Errolda” azpiatalak (ikusirik irudia). Aukera honen gainean klik eginez, norberaren erroldako datuak ageriko dira. Azkenik, inpugnazio formulario bat eskuratzeko aukera ere ageri da aplikazioan, datuak ez badira zuzenak edo aplikazioak mezu hau erakusten badizu: “ez dago errolda-daturik 2013-2014 ikasturtean”



Unibertsitateko Klausorako hauteskundeetako errolda

Erroldako datuak:

Errolda:	Unibertsitateko Klausorako hauteskundeak
Abizenak eta izena:	
Bozkatzeko-ikastegia:	Psikologia Fakultatea

BEHIN-BEHINIKO ERROLDA INPUGNATZEKO IDATZIA:

http://www.idazkaritza-nagusia.ehu.es/p254-content/eu/contenidos/formsehu/secretaria_general/eu_instancia/impugnar.php

Nahiz eta datuak web orrian kontsultatu ahal izan, erroldak ez dira inoiz ere hor agertuko.

ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO?

Erroldan egoteko baldintzak betetzen ditudala jakinda, bertan agertzen ez banaiz, **INPUGNAZIO BAT AURKEZTEA** da konpontzeko modu bakarra.

NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT?

Inpugnazioa idatziz aurkeztu behar da, astelehenaz, azaroaren 11ko 12.00ak baino lehen Erregistro Orokorreko edozein bulegotan edo, kasuan kasu, web-eko formulario bidez, Hauteskunde Batzorde Nagusiko buruari zuzenduta.

Web orriko formularioa aukeratuz gero, Idazkaritza Nagusiak erregistratuko du formularioa. Horretarako, helbide elektronikoa eskainiko da.

Web bidezko formularioa erabiliz gero, aplikazioan ohar bat azaltzen da mezua ondo bidali dela esateko. Horrelako oharrik jasotzen ez baduzu, Idazkaritza Nagusiarekin jarri harremanetan idana.hauteskundeak@ehu.es posta elektronikoaren bidez edo, bestela, inpugnazio bat aurkeztu erregistroko bulego batean.

Formularioa betetzeko klikatu hemen: [FORMULARIO](#)

Hauteskunde Batzorde Nagusiak egiaztatuko ditu erroldetan egindako zuzenketak, eta okerrik edo hutsik antzemanaz gero, zuzendu eta inpugnazioak ebatziko ditu. Horretarako, ikastegiko eta campuseko hauteskunde batzordeek inpugnazioei buruzko txostena egin eta erabakia, proposamenarekin batera, Hauteskunde Batzorde Nagusiari igorriko dio, hark **behin betiko erroldak** aldarrika ditzan **2013ko azaroaren 13an**.

Errolda behin betiko aldarrikatuta, ez da zuzenketarik egiteko aukerarik.

Behin betiko zerrendekin batera klaustroko ordezkarien banaketa zehaztuko da (*ikus klaustroko ordezkartzaren banaketari buruzko atala*).

HAUTESKUNDE BARRUTIA ETA HAUTESKUNDE MAHAIA

Hauteskunde barrutia eta mahaia bi gauza desberdin dira.

Hauteskunde mahaia da hautesleen botoa jasotzen dituen organoa eta botazioan buru izatea, bozketa bakez eta gardentasunez egiten dela zaintzea, hauteskundeei buruzko arautegia bete egiten dela zaintzea eta botoak zenbatzea ditu eginkizun.

Ikasleen kasuan, **hauteskunde barrutia** atxikita duten ikastegia da, Giza Zientzietako Titulazioan (Esperientzia Gelak) eta graduondokoak izan ezik. Graduondoko ikasleen barrutia UPV/EHUren Master eta Doktorego Eskola da eta Esperientzia Geletako ikasleena UPV/EHU osoa.

Graduko ikasleen kasuan, bat egiten duten hauteskunde barrutiak eta mahaia, nahiz eta litekeena den ikastegiko atalik duten ikastegi guztietan hauteskunde mahairik ez osatzea (hau da Medikuntza eta Odontologia Fakultateko ikasleen kasua, Txagorritxu, Donostia, Gurutzeta edo Basurtuko ospitaleetan, ikasketa hauek espezifikotasunari zor, boto gordailuaren aukera eginda).

Ez da berdin gertatzen Esperientzia Geletako ikasleen kasuan, zeren eta, salbuespenak salbuespen, irakaskuntza hau eskaintzen duten ikastegietan jarritako mahaietan emango duten botoa.

Azkenik, graduondoko ikasleek, UPV/EHUren Master eta Doktorego Eskolari atxikita izanik, horixe dute hauteskunde barruti eta beren hauteskunde mahaia ikasgune duten ikastegikoa izango da. Ondorio hauetarako, informazio hau, hots, botoa emateko ikastegia, erroldan agertuko

da eta ikastegietan argitaratuko da bertako hauteskunde mahaietan botoa emango duten master eta doktoregoko ikasleen errolda.

NORTZUK OSATZEN DITUZTE HAUTESKUNDE BATZORDEAK?

Hauteskunde arautegiaren interpretazioa eta unibertsitate klaustroko kideak hautatzeko prozesua antolatu, kontrolatu eta emaitzak aldarrikatzea da **hauteskunde batzorde nagusiaren** eginkizuna, bai eta prozesuan zehar sor litezkeen inpugnazioak ebaztea ere.

Hauteskunde batzorde nagusiak errektorea edo berori ordezkari dezakeena du buru, idazkari nagusia batzordeko idazkari eta osakideak irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorren ordezkari bat, irakasle eta ikertzaile ez doktore iraunkorren ordezkari bat, bestelako irakasle eta ikertzaileen ordezkari bat, ikasleen ordezkari bat eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat. Hauek guztiak zozketaz hautatu dira gobernu kontseiluko kideen artean, sektore bakoitzaren ordezkari gisa.

Honez gain, hauteskunde eguna behin zehaztuta, hauteskunde batzorde bat eratuko da hauteskunde barruti bakoitzean.

Ikastegiko hauteskunde batzordeko kide izango dira: dekanoa edo zuzendaria edo hark eskuordetutakoa (batzordeko burua izango da); idazkari akademikoa (idazkaria izango da); barrutiko hauteskunde talde bakoitzeko ordezkari bat.

Hauteskunde hauek ikasleen sektorerako baino ez direnez, ikastegiko hauteskunde batzordeko kideak dira dekanoa edo zuzendaria edo hark eskuordetutakoa; idazkari akademikoa; eta ikasleen ordezkari bat, ikastegiko batzarrean talde horrek dituen ordezkarien artean aukeratua.

Ikastegiko batzarreko beste kidegoren bat berritzen bada, berritu beharreko talde guztiek izan behar dute ordezkaria hauteskunde batzordean.

Gainera, **komenigarria da bilera egutegia zehaztea** ikasleen taldeak hauteskunde prozesua hasten denetik jakin dezan ikastegiko hauteskunde batzordeak noiz egingo dituen bilerak. Guk honakoa proposatzen dugu:

<p>1. bilera 2013ko azaroaren 12an, asteartea, 09:00etan. XX ikastegiko hauteskunde batzordearen bilera -adierazi tokia-; aztergaien zerrenda:</p>	<p>Lehenengoa.- Ikastegiko hauteskunde batzordearen osaera. Bigarrena.- Hauteskunde batzorde nagusiarentzako txostena egitea, klaustroaren hautaketarako behin-behineko hauteskunde errodari aurkeztutako inpugnazioen inguruan eta ebazteko proposamena jasoz. Hirugarrena.- Espedienteak hauteskunde batzorde nagusira bidaltzea (onartutako hautesle zerrenda eta aurkeztutako inpugnazioen kopia, edo, bestela, idatzi bat adieraziz ez dela inpugnaziorik egon).</p>
<p>2. bilera 2013ko azaroaren 21ean (osteguna), 12:30etan XX ikastegiko hauteskunde batzordearen bilera -adierazi tokia-; aztergaien zerrenda:</p>	<p>Lehenengoa.- Aurreko bilerako akta irakurri eta, egokituz hartuz gero, onartzea. Bigarrena.- Behin-behineko hautagai zerrendak (Klaustrokoak eta, hala dagokionean, ikastegiko batzarrekoak) aldarrikatzea, eta ikastegiko iragarki oholetan argitaratzeko agindua ematea. Hirugarrena.- Hauteskunde egunean zenbat mahai eta non jarriko diren agintzeko erabakia berrestea. Laugarrena.- Hauteskunde mahaietarako kideak aukeratzeko zozketa eta ordezkotarako irizpideak zehaztea. Mahaiko kide izatea egokitzuz gero, behar bezala egiaztatutako arrazoiren bat izan behar da uko egiteko. Bosgarrena.- Botoa aldeztatik emateko ordutegiari eta tokuari eta botoa hartuko duen pertsonari buruzko erabakia hartzea</p>
<p>3. bilera Azaroaren 27an, (asteazkenaz) 09:00etan. XX ikastegiko hauteskunde batzordearen bilera -adierazi tokia-; aztergaien zerrenda:</p>	<p>Lehenengoa.- Aurreko bilerako akta irakurri eta, egokituz hartuz gero, onartzea. Bigarrena.- Behin betiko hautagai zerrendak (hala dagokionean, ikastegiko batzarrekoak ere bai) aldarrikatzea, eta ikastegiko iragarki oholetan argitaratzeko agindua ematea. Hirugarrena.- Klaustorako hautagaien zerrendei aurkeztutako inpugnazioei buruzko txostena, hauteskunde batzorde nagusiari igortzekoa. Laugarrena.- Botoa emateko erabiliko diren orriak eta gutun-azalak¹ egitea (ikastegiko batzarra hautatzekoak). Bosgarrena.- Propaganda jardueri eta egutegiari (hala dagokionean, ikastegiko batzarra hautatzeko hauteskunde kanpainari) buruzko erabakiak hartzea. Seigarrena.- Hauteskunde egunaren antolaketari buruzko erabakiak: botazioaren lekua(k), eskola orduen murrizpena botoa emateko, bestelakoak.</p>
<p>4. bilera Abenduaren 11an, 10:00etan. XX ikastegiko hauteskunde batzordearen bilera -adierazi tokia-; aztergaien zerrenda:</p>	<p>Lehenengoa.- Aurreko bilerako akta irakurri eta, egokituz hartuz gero, onartzea. Bigarrena.- Klaustorako behin-behineko emaitzak aldarrikatzea, eta ikastegiko iragarki oholetan argitaratzeko agindua ematea. Hirugarrena.- Ikasleen ikastegiko batzarrerako ordezkariak hautatzeko emaitzen behin-behineko emaitzen aldarrikapena, hala badagokio. Laugarrena.- Klaustorako hauteskunderi buruzko espediente osoa hauteskunde batzorde nagusiari bidaltzeko agindua ematea.</p>
<p>5. bilera Abenduaren 18an, 10:00etan. XX ikastegiko hauteskunde batzordearen bilera -adierazi</p>	<p>Lehenengoa.- Aurreko bilerako akta irakurri eta, egokituz hartuz gero, onartzea. Bigarrena.- Ikasleen ikastegiko batzarrerako ordezkariak hautatzeko emaitzen behin-behineko emaitzen aldarrikapenari egindako</p>

¹ Antolaketa lanak errazteko, gogorarazi nahi dizuegu boto orri eta gutun azal berdinak erabili behar direla botoa aldeztatik emateko eta hauteskunde egunean botoa emateko.

tokia-; aztergaien zerrenda:	inpugnazioen ebazpena. Hirugarrena.- Ikasleen ikastegiko batzarrerako ordezkarien hautaketaren emaitzen behin betiko aldarrikapena eta beroriek ikastegiko iragarki taulan argitara daitezela agintzea.
------------------------------	---

ARGIBIDEEN HURRENGO FASEA

Argibide hauek hiru fasetan banatzen dira, eta web orrian argitaratuko dira hauteskunde egutegiko kasuan kasuko eguna iritsi ahala. Web orrian informatuko dugu fase bakoitzean izango diren gertaera nagusiez, bai eta epeen amaieraz ere. Honez gain, hauteskunde prozesua facebook eta twitter bidez ere jarraitu ahalko da.

Lehenengo fasea hautesle erroldak eratu eta horiei inpugnazioak aurkezteko da eta urriaren 31tik egongo dira edonoren esku. Egun horretantxe argitaratuko dira hautesle erroldak.

Bigarren fasea, bereziki, hautagaien zerrenden aurkezpenari dagokio. Azaroaren 13tik aurrera egongo da ikusgai web orrian (egun horretan argitaratuko dira behin betiko erroldak).

Hirugarren eta azken fasea, bozketa eta kontaktari buruzkoa, azaroaren 28an hasiko da. Egun horretantxe argitaratuko dira behin betiko hautagaiak.

ERANSKINA

IKASLEEN KLAUSTRORAKO HAUTESKUNDEETARAKO EGUTEGIA. 2013ko AZAROA/ABENDUA

- Hauteskundeak egiteko erabakia argitaratzea: 2013ko urriaren 31an (osteguna)
- Errolda ixtea: 2013ko azaroaren 4an (astelehena)
- Behin-behineko errolda argitaratzea: 2013ko azaroaren 5ean (asteartea)
- Errolda inpugnatzea: 2013ko azaroaren 11ko 12.00ak arte (astelehena)
- Behin betiko errolda argitaratzea: 2013ko azaroaren 13an (asteazkena)
- Hautagai zerrendak aurkezteko azken eguna: 2013ko azaroaren 20ko 12.00ak arte (asteazkena)
- Behin-behineko hautagai zerrendak aldarrikatzea: 2013ko azaroaren 22an (ostirala)
- Hautagai zerrendak inpugnatzea: 2013ko azaroaren 26ko 12.00ak arte (asteartea)
- Behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatzea: 2013ko azaroaren 28an (osteguna)
- **BOZKETA:** **2013ko abenduaren 10ean (asteartea)**
- Klaustrokideen behin-behineko zerrenda aldarrikatzea: 2013ko abenduaren 11an (asteazkena)
- Jatorrizko espedientea Hauteskunde Batzorde Nagusiari igortzea: 2013ko abenduaren 13an (ostirala)
- Klaustrokideen behin-behineko zerrendaren inpugnazioa: 2013ko abenduaren 16ko 12.00ak arte (astelehena)
- Klaustrokideen behin betiko zerrenda aldarrikatzea: 2013ko abenduaren 18an (asteazkena)
- Ikastegiko ikasleen kontseilua eratzeko, pertsona bakarreko organoen hautatzea eta campuseko ikasleen kontseilurako ordezkariaren izendatzea: 2013ko abenduaren 20an (ostirala)

BOTOA AURRETIK EMATEKO EGUNAK: ABENDUAREN 2an, 3an eta 4an.